

EUSKAL JOLAS, PILLOTA JOKUA

(Jarraipena.)

Len aitatutako Manuel Lekuona (*Urchalle*), ere pillotari bikaña zan ta orretaz ere zerbait esan liteke; baña nere lan au, irakurlearen aspergarri izan ez dedin, laburtu nai det. Alaz guziz bañan, onen gertaera polit bat azaldu dezagun.

1851-garren urtean, beste lagun batzuekiñ, San Fermiñ jayak igaroaz, partidu bat edo beste, eraz etorri ezkerro, jokatzeko asmoz joan zan Iruña'ra, ta jokatzeko era ori azaldu zitzaion.

Ezer gabe joan bazan ere, bi milla *duroren* jabe egin zzn. Bañan, *karta* jokuan ere chit zalea zalako, gau batean galdu zituan irabazitako bi milla *duroak* eta gañaz eramandako chanpon banakak. Nola etorri, ala joan. Etzuan baña galdu bere alaitasuna. Lagunak aspertu zitzaizkion arte, jardun zan, soñu jo, ta euskeraz neurtitzak abesten.

Erreteriko bere echera etorri zan, ta, urrengo goizean iriki zituan dendako ateak, erosle onak sartu zitezen, bada gosaltzeko ere chanpon bat gabe zegoan.

Zai egon ondoren etorri zitzaion neska chiki bat ardit baten gosoen eske.

Ordu asko igaro etzan, bi milla *duroren* jabe zala, ta orain ardit bati ¿zer esker eman bear dio? ¿Purrustada bat egin ondoren, neska chikia ikaratua, iges bialduko ote du? Ez. Alai alai begiratuta esan zion:

—Chiki: gorde zan ardita ta zabaldu mantalchoa—eta ori esan ondoren, artu zuan gosoz betetako ontzia ta neskachoaren mantalera ustua, esan zion:

—Ua; oyek itzat, eta ire aizpa ta anaichoentzat.

Joera oyetako asko izan zituan Urchallek.

Pedro Yarza (*Billabona'ko changua*), chikitandik adu charren mende zetorrena; sendikide beartsua izatea asko etzalarik, lau urteko mutikoa zala, erori ta miñ artu zuan. Illko ez bazan, pasmoak jo zion besoa moztu bear izan zioten.

Zerbait ezaguerara irichi zanean, igarri zion etorkizun beltza zetorkiola; baña bere gogoa, illuntasun oyek argitzeko, indartu bearrean, zeruko laguntzak utzi ta deabruak azaldu zion bideari jarraitu zion, bere buruari bizia kentzeko asmoak artzeraño, bizi orrekiñ batera, bere garraztasunak amaituko zitzaizkion ustean.

Esku ezker arekin bakarrik ¿zer egin zezakean beste askok bi eskuz gauz aundirik ezin bazuten?.....

Baña urte batzuen buruan, adu char orrek aldegin zion ta onak etorri zitzaizkion. Esku ezker ortan *sestoa* sartu ta pillotan asi zanean, pillotari onenen bildurgarri izan zan. Indartsua, bizia, trebea zan, ta batez ere, ezker joak beste era bat artzen dutelako, bere joerak igaritzen zallak izaten ziran.

Aipatuenetako bat izatera irichi zan ta irabazi onen jabe izan zan.

*
* *

Roman Beloki, Pedro Arrese Igar, beste izenez *Portal*, Juan Jose Ezeiza, *Mardura* zeritzana, Bisente Elizegi, Luis Sanperio, Juan Jose Gorostegi (*Irun*) Saturnino Echeberria (*Muchacho*), Bitoriano Ganborena, Anjel Bilbao; beste izenez *Abando'ko* Chikia, Jose Joakin Altamira, Chikibar, Brau'tarrak, Rekondo, Takolo, Enbil, Iturriotz, Martin, Echeberria, Pedros, Uranga, Arakistain, Salazar, Sarasua, Machin, Napparrete, Chitibar, Barriola.

Ona emen 1890 bitarteko pillotarien edestietan ezarritako izen ugari.

Nere asmoa zan bakoitzari itz labur batzuek beintzat opaltzea, baña, nai baño luzetzeagora joango giñakelako aitatu utsakin guziak uzten ditut.

*
* *

Luzerako jokuan orma *paretik* ez da. Ibiltoki, landa, zelai lankituan jokatu liteke lurra egokia bada, *saketik* itzultoki *errestara*, eun neurkin *metro* inguru bitartetu ezker.

Plazaren ertz batetik bestera *sakatzen* da, baña orretarako iru bana-keta egiñaz, bi zearreko goroiki edo lerroz autuak *eskasak* deritzayo-

nak, sakatzen dan lekuko eskasa, ta bestea itzultokikoa; oni sake guziak erain bear diote.

Jokatzeke, larruzko esku-zorroari erantsitako zumitzezko saskicho guantea deritzana izaten da.

Beste oraingo jokuetan tantoka bezela, emen kintzeka zenbakitzen da, ta lau kintze bear dira jokua irabazteko.

Lenengo irabaztean esaten da kintze.

Bigarrenean ogeitamar.

Irugarrenean berrogei.

Eta laugarrenean jokua.

Partidu bakoitzak oi ditu zortzi, amar edo amabi joku.

Iru irutara, laura edo bostera izan litezke, batzuk urdiñez jantzita, ta besteak gorriz,

Plazaren ertzean jartzen da sakatzeko arri bat, eta pillota itzuli bear dutenak beste ertzean egoten dira; gañerakoak plaza erdibitzen duan lerro inguruan.

Ustegabeko gertakeri pranko sortzen dira askotan bi alderditakoak tokiz aldatzean, ta gora-bera parragarriak jolas guchitan bezela ikusten dira.

Edozein jokalarik sakeetik beste aldeko muga bitartean pillota geldiarazten badu raya izaten da.

Erdian edo erdiz sake aldera gelditzen bada, lerro zuzen batez ikurtzen da gelditzen dan tokitik alboko falta lerrora, ta ezagungarri ezipalcho edo zerbait jartzen da.

Konerka, albo lerroetan sartzen danean pillota, raya jartzen da, faltara sartu dan tokian.

Raya deitzean, aldatzen dira tokiz jokalaria.

Rayaz kintze irabazteko naikoa du egin zuanak, andik berriz pillota igarotzea besteak biurtu gabe, edo ta biurtu arren lerroz aruntz gelditzenbadu.

Orregatik jokalaria sayatzen dira rayak egiten, ta besteai egiten eragozten.

*
* *

Erreboteko jokua ere luzerakoren endakia baizik ez da, t'onen antz aundiak dituna. Banaitzen da erditik sakatzen dalako eskuz, pillota botaz alderdi batera dagon ormara ta onen aurreko arزابalez ezarritako lekuari erain gabe.

Erdian jartzen dan sakarriaren bi aldetara zabaltzen da goroikiaren ordez lerroa, ta emendik arzabal tokira bitartean rayak egiten dira.

Sakalariaren trebetasuna da, orma ta lurra batutzen diran chokoan jotzean pike egin ta pillotari boterik egiñarazi gabe raya egiten. Orrekin eskubidea dauka *errestora* aldatzeko, onen zale dirata guziak.

*
* *
*

Trinketea da estalitako lekua zearreko sarek erdibitzen dana; ta orren gañetik aldatu bear du pillotak.

Sare onen aurreko zurezko egazpera esku eskerrez sakatzen da, ta dijoa era berean trinketearen ezkererra.

Sakatzen dan beste alderdiko orman, eskubi ezkerretara daude bi mulko barobill *prailleak* deritzanak, eta oyek ikutu ezkerro pillota era-ge dijoa, ta *erresto* zalla da orduan.

Rayaik ez da. Gañerantzean luzera ta errebotean bezela jokutzen da.

JUAN MÚGICA LASQUÍBAR

(Amaituko da.)



EUSKAL JOLAS, PILLOTA JOKUA

(Amaya.)

Eskuz, *palaz*, *remonte* ta *blekan* jokatzeko daude *plazak*, orma, *paret* aundiz egiñak; aurrekoa goibe ta zabal berdintzu duna, ta ezker *pareta* goieraz berdin, bañi chit luzea, amairu, amabost lauki kuadro ta geigokoak badira. *Kuadroa plazaren* luzera neurtzen duten saillchoai deritzago. Guziak berdiñak dira.

Lurra arleunduz, edo beste gai gogorrez ezarria da, aurreko ormak dion eran escubi aldetik mugatuaz *faltako* tokia. Pillotan orrez barrura ibilli bear du tantoa galduko ez bada.

Goiak ere badu muga. Ormaz gañetik dagon sarean pillotak ikutu ezker *tantoa* gaitzen da.

Baita ere aurreko orman dagon burni azalen gañetik aldi bakoitzan pillotak ibilli bear du.

*
* *

Luzerako izaten dan guante motza bezela, zumitzez igotako aundigo dan sestou remonterako bear da.

Pala berriz, adaki trinkoa esku leku biribill eta mutur zabala duna.

Remontean, *blekan*, eta *palaz* eskuzko era beretan jokatzen da. Pillo-ta gogor eta larrigoa da, indar askoz geyago izaten dulako, eta zakalariak zortzitik amar inguruko laukietatik sakatzen du.

Onek indar neurtuan asi bearra dauka; bada, laugarrenetik zazpi-garren laukien tartera sartu bear du, naiz ta gero jo arren nai dun aña.

Lenbizikoan zazpi laukitik sakean erain ezker, berriz sakatzen da, baña bigarrena erabat egiten badu *falta* da.

Joku oetan *zakalari* izatea nayago da, onura dalako, bada sakalari onak asieratik mendetzen du *tantoa*, errez irabazteko, ta ori luzeran gertatzen ez da. Baña leikide aurrelari ona bada *sakerik* zorrotzenak besagain edo azpitik jaso litzake chit eroso.

Atzelarien egitekoa da beste aurrelariari besagaiñ edo aidera sartzen eragozte. Orregatik neke geyena egin bearra dauka, ta onen laguntzaren bitartez aurrelariari erosotzen zayo *tantoa* bukatzea.

Gai ontan, zer azaldu asko geyago gelditzen zait baña... ni nekatu naiz.

*
* *

Oraiñ amar, amabi urte, eskuzko pillotarien aldartea zan eta Donostiko «Moderno» egin zanean, bi ordu ta iñoiz ere iru irauten zuten añako partidu luzeak jokatzen ziran. Ordu erdiko eta geyagoko tantoak Azkoitiko Chikia, Baltasar, Urzelai, Sustarra, Kanpos, Errezabal, Takolo ta besteak egin oi zituzten. Baña aldi ura bukatu zan, eta orain ezkulariak baztartuta daude, garaya galdotako soñekoak baztartutzen diran lez; eta erri kaskarretako jai aundietan bakarrik azaltzen dira.

Aspergarrikoa da, ta dirularien gora-bera nekezagook ditu, esku pillotak remonteak baño; ta orain, onen chanda da.

Egunero Donostiko «Jai Alai-n», udaran egualdi ona danean eta «Moderno-n» beste egun guzietan, jokatzen dira bi partidu, ta dirutza pranko esku-aldatzen da. Batez ere, ostegun eta igandeetan pillotari onenak jokatzen dutenean, pillotarako zenbaterañoiko zaletasuna dagon ondo ezagutzen da.

Diru chartelez eskuk bete dituela, ikusten dira naiko, lau irabazi ta zortzi naiez, edo ta galeran daudenak ordaindu naiez zalapartaka ta deadarka, larri azko, bateren alde ta bezteren alde naspillak egiñaz. Oni chalo, ari chistu iskanbilla biziak egiñaz, guziak erotuta balebiltz bezela.

Bi edo iru urte dirala puntaz edo blekan Donostiko Atochako plaza berrian asi ziran jokatzen; bereala ordea atzendu ziran. Orain joku onek Madrillen irauten du, palariakin aldizkatuaz.

Bilbaon ere menetako palariak dabiltz, ta egunero jokatzekeo lain ikusle ta jokalaria gogatzu biltzen dira.

Pillota, Euskal-erriko jokua da; Madrilla ta beste tokietara euskaldunak eraman dute jolasau, eta beti euskaldunak berari iraun azi diote.

Sayatu izan dira euskaldunik gabe antzartutxen jolas au, baña irudi parragarri batzuek besterik ez dira jolas oiek.

Ingelesak lawn-tennis izena dun jolasa badute, eta berau euskaldunen trinkete deritzanaren antzekoa da.

Gorputzaren adore ta bizitasuna ondoena aztartzeko dan jolas guzietan pillota da lendabizi dagoana.

Jolas onek adiña, t'orren berdinki miatzen dun beste bat ez da.

Azi oñetik eta bururaño dauden gorputz-atsalak badute zer egiña; beso zaiñ indartsuak, oiñ ariñak, eranskune ezatsuak, gerri bigunak, bular zendoa, nasargizailduak, begi ernayak eta buru azkarra bear ditu pillotariak.

Gorputzaren chiki auridian ez dago pilotari izatea. Billabonako beso mocha ta beste norbaitzuk ajedun izan arren, pillotari ona izateko, gorputzean akatzik bear ez da.

Gorputz egokia, aje gabea, ta indartsua bakarrik naiko ez da pillotari ona izateko.

Oyezaz gaiñ kemenstu, bizia, ernea, jokera biurrikoa eta iraupen luzekoa pilotaria izango da; ez asialdi zorrotz bat egiñ, eta bereala moteltzen dana.

Batek, joaz gañera, buruak erakusten dio nor dan indar geyagoko ta pillotari ohea, eta orregatik gaizki ibili liteke azkenerako bere almenaz gordeaz badabill. Gertatu oi da azkotan jokaldi edo partidua asieran errez ta jostatzen bezela tantoak irabaztea, ta gero, len aintzakotzat arzen etzana gallendu, ta onen jokoari ezin erantzutea.

Mutiko kaskar, eta aiena bezin igarrak, urdai zarraren azala baño zimelagoak ikusi ditut, lepo zañak lodi lodi, eskuak puztuta, begiak lertzeko zorian dituztela, or erori, emen alcha, lur azpira sartu riayez bezela, makurtuta; zerua ikutu nairik bezela luzetuta; baña beti, pillota jokuarren kemenstu, beti adoretzu dabillega.

Luzaro ibili gabe, noiz banakatan, sayo gogorra egin ezkerro, ondo-rengo egunetako gorputz guriko nasargiak nagi gelditzen Jira; baña maiz dabillenantzat nagirik ez dago: osasungarri dan izerdi puskabat da, bere ondoren guzia.

Pillota jolasetzat botatzen da, naiz jolas au, azkotan lanik gogorre-na baño neke aundigoko dema biurtu.

Nun nai, ta noiz nai ikusten dira pillotan dabiltzanak alkandora besoz arpegiko izerdia legortzen, aoa zabalik, aznasez ezin ase dirala, eta iñoiz bai t'ere *tanto* bat bukatzean zutik ezin egon eta lurrera beren

buruak boteaz, plazako arriak izerdiz bustita uzten dituztela. Egarri daudela, naiko ud-otz edanda, izerdia legortzen aizetan makutsik egonda, oñak udetan sartu, eta orrelako beste asko egin da.

Mutill pranko bear baño len ill izan oi dira, osasuntsuak izan arren, orrelako sayo gogor baten ondoren beren buruari begirapenik gabe, ajola gabe urzi zielako.

Bein, bi, lau aldiz, ondorengo charrik gabe igaro litezke baña maiz iturrira dabillen charroa azkenean ausitzen dan bezela, gorputz aldarte charra bein naikoa da gaitzari atea zabaltzeko.

Erri chikienetan ere, bada pillotarako griña, eta igandeetan (astegunean ezin dutelako) ikusten dira, zortzi urte ezkeroko mutill koskorretarañoko guziak, bakoitza pillotaren jabe dala.

Egiz, nabaigarriak dira oen esan, jarrera, ta gorpuzchoen arintasuna asten diranean bata bestearen leiaz, ezer gorde gabe dakiten guzia azaltzen.

Obe litzake ume oek bezelako oneraz guziak jokatuko baluteke, diruaganako zaletasun era gabeak dakartzkin iruzurkeri ta galbide charrez orbandugabe, ederren artean ederrena dan jolas au,

JUAN MUGICA LASQUIBAR

